

3. KULTURA

3.1.-Kulturaren esanahiak eta edukiak.

Munduan bizi garen 7000 miloi giza-emakumeok espezie bereko kideak gara, hau da, *homo sapiens* delakoa; baina ezberdintasun nabarmenak izaten ditugu gure jokabidetan. Nola agurtzen dugun elkar, zer jaten dugun eta nola prestatzen ditugun janariak, gorputzaren irudiak, familia antolaketa, gustuak, sinesmenak, eta abar luze bat, ezberdintasun kulturalak dira. Gure nortasunaren atal bat da kultura eta, horregatik, funtsezkoa izaten da gizartearen azterketarako.

Beste alde batetik, gaur egun gure gizarteak gero eta nahasiagoak dira, hau da, kultura jatorri ezberdinetako jendeaz osatuta daude. Honen eragina nabarmena da hirietan dagoen aniztasunean. Hori dela eta kulturantzatasunaz edo multikulturalismoz, nonahi hitz egiten da.

Kultura, antropologoek landutako kontzeptua da, gaur egun gizarte zientzia guztietan erabiltzen dena. Hainbat definizioen artean, badago bat klasikoa bihurtu dena, Edward TYLOR antropologoak 1871.ean emandakoa:

“Kultura edo zibilizazioa osotasun konplexu bat da, non sartzen diren gizakiek , gizartearen partaide bezala, barneratutako ezagupenak, sinesmenak, arteak, moralak, legeak, ohiturak eta beste edozein gaitasun eta azturak”

Gizartea eta kultura txanpon bereko bi aldeak dira. Gizartea gizakion taldea eta gizakion arteko harremanak dira, eta kultura, harreman horiek aurrera eramateko darabilkigun elementuak.

Kulturak bi atal nagusi ditu:

Kultura ez materiala: Ukiezina eta ikusezina da. Ideiaz eta sinesmenaz osatutako kulturaren atala da.

Kultura materiala: Gizarte bateko kideek sortutako eta landutako gauzak, agerpen fisiko bat daukatenak.

Kultura materiala zein ez materiala batera joaten dira **praktika kulturaletan**, hau da, eguneroko bizimoduan erabiltzen ditugun ekintza moduetan

Kulturaren oinarri biologikoa.

Gizakiok animaliak gara, baina izaera biologikoa nahiko berezia dugu. Ez gara animali espezializatuak ingurugiro edo ekosistema jakin batekin erabat lotuta daudenak. Malgutasuna eta espezializazioaren gabezia dira gure ezaugarri nagusiak. Ez dugu senik. Horren ordez kultura dugu.

Etologiak aztertzen ditu beste animalien jokabide sozialak :

- Taldearen barneko harremanak
- Lurraldearen defentsa
- Jokabide ikasiak
- Komunikazioa

Orokorrean mugatuak dira eta genetikoki baldintzatuak.

Kulturaren izaera eta edukiak

Kulturak bi ezaugarri nagusi ditu:

- **Araumailea:** Bizi garen gizartean, eguneroko jardueran izaten ditugun egoera ezberdinetan,, badakigu nola jokatu behar dugun, ez dugu ezerezetik asmatzen gure portaera, horretarako kulturak ematen dizkigu beharrezko arauak.
- **Sinbolikoa:** Ideiak, sinesmenak eta baloreak zerbait abstraktuak diren neurrian beste elementu batzuekin adierazten ditugu; elementu horiek ematen diote kulturari bere izaera sinbolikoa.

Kulturaren edukiak honako hauek dira:

-**Sinboloak:** Kultura bat partekatzen dutenentzat esanahi berezia duen edozein gauza sinbolo bat da. Kultura ezberdin batekin topo egiten dugunean zailtasunak izaten ditugu bere sinboloen esanahia interpretatzen. Sinbolo eta zeinuen ikerketa **semiotikak** aztertzen ditu.

-**Hizkuntza:** Kulturaren elementurik inportanteena da. Sinboloen sistema bat da zeinaren bidez gizarte bateko kideek elkarren arteko komunikazioa lortzen dute. Kulturaren mantentze eta metaketarako behar beharrezkoa da.Hizkuntza eta kulturaren arteko harremanak aztertzerakoan, indarrean dagoen eztabaida **Sapir-Whorf** hipotesiak planteatzen duena dago. Hipotesi honen arabera hizkuntza bakoitzak munduaren ikusmolde berezi bat ematen du.



-Sinesmenak: Errealitatearen funtzionamenduaren inguruko ideia partekatuak dira. Bere oinarrian zientzia, erlijioa, uste orokorra, jakinduria herrikoa edo elementu guzti hauen nahaste bat dago.

-Baloreak : Sinesmenak errealitatea interpretatzeko printzipio nagusiak badira, baloreak zer dagoen ondo, non dauden lehentasunak eta zer den desiragarria eta errespetua merezi duena. Oso orokorrak dira baina baloreak dira arauen ardatza.

-Arauk: Zer egin behar den eta zer ez egoera jakin baten aurrean esaten digute. Derrigortasun maila ezberdinen arabera sailkatzen dira

- Tradizioak edo eguneroko ohiturak (**folkways**): Jokabide gehienak arautzen dute, baina urratzen badira ez da ezer gertatzen, bakarrik arraroa egiten zaigu, ezohikoa delako.
- Ohiturak (**mores**): Kutsu moral bat izaten dute. Zer dagoen ondo eta zer gaizki esaten digute. Nolabaiteko errefusapen edo zigorra izaten du ez betetzeak. Horretarako erabiltzen dira behean ikusiko ditugun kontrol sozialaren mekanismoak.
- **Legeak:** Arau formal eta idatziak izaten dira, Estatuaren babesa dutenak.

-Ezagupenak: Jakinduria praktikoa zein teorikoa da, inguruan ditugun kultura materialaren elementuek zertarako balio duten eta nola erabili behar diren azaltzen duena.

Globalizazioaren ikuspuntutik oso ondo ezagutu behar dira kultura bakoitzaren elementuak hanka-sartzerik ez izateko edo estrategia arrakastatsu bat izateko zerbait saltzen denean.(Ad. Mitsubishi Montero, jatorriz Japonian Pajero da edo Mazda bat Laputa deitzen da).

3.2.-Gizarteratze prozesua.

Jaiotza biologikoaren ondoren jaiotza soziala eman behar da, hau da, gizarte jakin baten partaideak bihurtu behar gara. Gertaera honi **sozializazioa** edo **gizarteratze prozesua** deritzogu. Prozesu moduan definitzen dugu epe luzean ematen den gertaera delako. Gizarteratzearen bidez lau prozesu sozialak ematen dira aldi berean:

1)Gizaki berria gizartearen partaidea bihurtzen da.

2)Gizaki berriak gizartearen kultura barneratu egingo du, bere izaeraren ezaugarria bihurtuko du.

3)Kulturak bere iraupena ziurtatuko du belaunaldi berriak eskuratuz.

4)Gizabanakoak bere nortasuna garatuko du

Gizarteratze prozesua bizitza osoan zehar ematen da bi epe nagusi bereizten dira.

Lehen mailako gizarteratzea (primarioa)

Jaiotzaren unetik eta bizitzaren lehenengo 4-5 urteetan ematen dena da. “Hurbileko esanguratsuen” bidez ematen da eta afektibitateak berebiziko garrantzia izaten du. Barne-barneko elementuak bihurtzen dira hor ikasitakoak.

Bigarren mailako gizarteratzea(sekundarioa)

Instituzio edo erakunde jakin batzuen inguruan ematen da. Ezagupen espezializatuak barneratu behar dira. Urruntasun afektiboren testuinguruan ematen da.

3.3.-Nortasunaren eraikuntzaren teoriak.

Bakoitzaren nortasunaren muina eta sendotasuna oso inportanteak dira kontsumitzailearen portaera aztertzerakoan. Badaude jarrera batzuk barne-barnekoak direnak, eta nahiko sailak direnak aldatzeko; beste batzuk aldiz, azalekoagoak dira eta aldagarriak dira kanpoko eragin baten aurrean.

Psikologiaren lan esparruan kokatzen dira teoria guztiak, baina badaude batzuk gizartearen eragina aintzat hartzen dutenak , eta alde horretatik interesgarriak direnak.

Lau egile nagusien teoriak ikusiko ditugu

Jean Piaget, Erik Erikson, Sigmund Freud eta George H. Mead.

Jean Piaget

Ezagupenaren mekanismoaren bilakaera aztertu zuen , hau da, nola ikasten dugun ikastera. Bere ustez egitura jakin batzuk barneratu arte ezinezkoa izaten da zailagoak diren beste batzuk barneratzea . Lau aro edo epe nagusiak berezitu zuen nortasunaren bilakaeran:

- 1)**Aro zentzu-motorea** (0-2 urte).Zentzumenen bidez ezagutzen da mundua. Objektuen iraupenaren kontzeptua garatzen da.
- 2)**Aurre-eragiketaren fasea** (2-7 urte).Sinboloen erabilpena ikasten da. Ezaugarriak banan-banan aztertzen dira
- 3)**Eragiketa konkretuen fasea** (7-12 urte)Kausalitatea ondo ezagutzen da . Begi-bistako ezaugarriekin (konkretuak) lan egiten da.
- 4)**Eragiketa formalen fasea** (12-16 urte) Pentsamendu abstrakturako gaitasuna garatzen da.

Erik Erikson

Bizitzaren zikloan identitate krisiak ematen dira. Une erabakiorrak dira nortasunaren garapenerako. Berezi nerabezaroan ematen den krisialdia.

<u>Adina</u>	<u>Krisia</u>
Lehen haurtzaroa (0-2)	Konfidantza/mesfidantza
Haurtzaroa (2-4)	Autonomia/zalantza
Jolasaren etapa (4-6)	Ekimena/errua
Eskola etapa (6-12)	Gaitasuna/gutxiespena
Nerabezaroa (12-18)	Nortasuna/rolen nahasmena
Adin heldu gaztea (18-35)	Mamitasuna(intimitatea)/bakardadea
Adin heldu ertaina (35-50)	Sormena/motelaldia
Zahartzaroa (50-	Duintasuna/etsipen

Sigmund Freud

Gizarteratze prozesua gure irrika edo pultsio sexualak bideratzeko ahalegina da. Kultura beharrezko errepresio sistema bat da.

Nortasunean hiru atal bereizten ditu:

Id: plazerraren printzipioak gidatzen du

Ego: errealitatearen printzipioan oinarritzen da

Superego: Gizartearen arau barneratuak.

Lau etapa daude garapenean umearen gune erotikoekin erabat lotuak daudenak:

- 1) Ahozkoa: (0-1)
- 2) Uzkiezkoa (1-3)
- 3) Ernalkiezkoa edo zakil aroa (3-6)
- 4) Latentzia aroa (6-12)

George Herbert Mead

Rolak nola ikasten eta barneratzen diren aztertu zuen. Hiru etapa berezitu zituen.

- 1) Prestaketa (1-3) Helduen jokabidea imitatu ondo ulertu barik
- 2) Rolaren ulermena (3-5) jolasaren bidez
- 3) Jokoaren etapa (5-6) Arauak eta "besteok orokorrean" identifikatzen dira

3.4.-Gizarteratzearen eragileak.

Familia: Lehen mailako gizarteratzearen eragile nagusia. Iraunkorra eta tematiarria. Balore nagusiak, oinarriko ohiturak, bizitza estiloak hor barneratzen dira. Gurasoak portaerarako ereduak izaten dira.

Eskola: Historikoki berria da. Gizarte industrialaren eta Estatu modernoaren emaitza. Gizarteratzea sistematiko eta programatua izaten da. Bi motatako edukiak transmititzen ditu:

1) Agerikoak: Ikasgai formalean ematen direnak. Normalean egitura politiko jakin bateko hiritarrak sortzeko edukiak izaten dira. Homogenizazio kulturala bilatzen da. Oinarriko alfabetatze orokor bat da azken helburua.

2) Ezkutukoak: Baloreak, sinesmenak, diziplina, lehiakortasuna.

Parekoen taldea: Oso inportantea nerabezaroan, iritziak eta baloreak bideratzeko.

Komunikabideak: Indartzen dute alde aurretik dauden iritziak. Homogenizazio kulturalerako tresnak izaten dira.

3.5.-Kontrol soziala eta desbideraketa.

Hainbat jokabide ez dira bat etortzen arau kulturek eskatzen dutenarekin bat. Horrelako jokabideak, jokabide “desbideratuak” izango dira. “Desbideraketa” prozesu bat izaten da. “Etiketaren” teoriaren arabera pertsona bati “etiketa” jakin batekin identifikatzen zaionean zaila izango da hortik alde egitea.

Jokabide desbideratuak eragozteko eta gizarteratze prozesu arrakastatsu bat lortzeko gizarteak hainbat mekanismo izaten ditu, “kontrol sozialaren” mekanismoak hain zuzen. Zigorrek eta sariak egoten dira jokabide okerrak edo desbideratuak zuzentzeko eta jokabide egokiak eta eredarriak indartzeko.

Zigorrek: Izan daitezke formalak edo informalak

-Fisikoak (biolentzia mota guztiak)

-Ekonomikoak: Isunak, boikota

-Magiko-erligiosoak: begizkoa, jainkoen zigorra

-Harremanetakoak: Berritsukeria, bazterketa soziala, lotsaraztea, erridikulua